

## SECCION AMENA.

### BLAS ERLOJEROA.

Donostiyari bizi da  
jaio zan ezkeroz,  
baditu irurogei  
urte onezkeroz;  
orniturikan dago  
jaun au opiziyoz,  
lan denetan ikasi  
zuben apiziyoz.  
Orain ibillitzen da  
erleju konpontzen,  
ongi ez dabiltsanak  
okerrago jartzen;  
ala lengo batean  
echetik atera  
zan joateko lanera  
baserri batera,  
zeñetan erlejuba  
zeguan geldituta,  
noski olioaren  
paltan nagituta;  
sari askatu zizkan  
errubera denak;  
gero gaizki jartzeko  
len zuzen zeudenak;  
apenas konpondutzat  
utzi ta jechi zan,  
erlejuba zan asi  
eruaeren gisan;  
ordubatean igual  
jotzen zituben bi,  
nola amabiyetan  
ogeita amabi;

amabosten bat egun  
pasarik onela,  
baserriko andrea  
jechi zan kalera,  
eta billaturikan  
erlojero zarra  
esan ziyon:—«Etzigun  
laja obra charra;  
bedorrek konponduta  
gure erlejubak  
jotzen ditu aldiko  
ogeika ordubak.»  
Eta eranzun ziyon  
Blasek arriturik:  
—«¿Zenbat denbora pasa  
zuben len geldirik?»  
—«Jauna, segururikan  
ez dakit nik zenbat,  
bañan pasako zuben  
urte osoren bat.»  
—«Orduban utzi zaizu,  
ez egin kasorik  
arrek pieza denak  
daukaizki osorik,  
orain arida lengo  
parte denak jotzen,  
eta ditubenean  
guziyak osatzen,  
iñork ikutu gabe  
zuen erlejubak,  
segituko du jotzen.  
justuko ordubak.»

RAMON ARTOLA.